



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

4. ETXEBIZITZA PARKEAREN KALITATEA

4.1. IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA ERAIKUNTZAN

4.1.1. Iraunkortasun-printzipioak

- Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) esparruan, 2002-2005eko Etxebizitza Bideratzeko aurreko Planak bildu zituen jada Ingurumen Esparru Programaren helburuak eta konpromisoak. Gauzak horrela, azken lau urteetan Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak energia-eraginkortasuneko irizpideak biltzen dituzten jardunak bultzatu ditu, sustapen publikoko eraikin guztietan Energia Eraginkortasuneko Ziurtagiriak eskatuta.
- Une honetan, Sailaren eta VISESAren sustapen publikoko bizitegi-eraikin guztiek energia-eraginkortasuneko dagokien ziurtagiria daukate. Era berean, eraikin horiek ekipoak ari dira gaineratzen ur bero sanitarioa produzitzeko eguzki-energia aprobetxatzeko, eta zenbait kasutan instalazio fotovoltaikoak jartzeari ere ekin zaio.
- Euskadi 2010 Energia Estrategian ezarritako helburuak lortzeko lagungarri izaten ari dira neurri horiek guztiak, eta, aldi berean, aurrerapausoa ere badira Estatuko Gobernuak onartu berri duen eta 2007an indarrean sartuko den araudia nahitaez betetzeari begira: Eraikuntzaren Kode Teknikoa. Eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko 2002ko abenduko 2002/91/EE Zuzentarua estatuko legeriara ekartzearen emaitza da Araudi hori, eta eraikin eraiki berri guztietan energia-eraginkortasuneko gutxieneko eskakizun batzuk gaineratzea eragingo du horrek.

4.1.2. Eraikuntza Iraunkorrerako Balioespen Kodea

- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzarekin, "**Etxebizitzarako Eraikigarritasun Iraunkorra Balioesteko Gida eta Kodea**" landu du.
- Eraikitze-prozesuaren fase guztietan egokitu beharreko neurri guztiak biltzen ditu Kodeak: Hirigintza Plangintza, Diseinua, Eraikuntza, Erabilera eta Mantentzea, eta Iraunaldiaren amaiera.
- Energia-eraginkortasuna areagotu eta beren iraunaldian erakinek izango dituzten ingurumen-inpaktuak murriztea da azken helburua, eraikuntzarako materialak eta osagaiak lantzeko lehengaiak erauztetik hasi eta erakinek eraitsi eta haien materialak balorizatu edo zabortegei batean uzten dituztenera arte. Gauzak horrela, etxebizitza-erakinek ingurumen-arloan iraunkorrak izango dira, kalitaterik galdu gabe, ezta prestaziorik edo azken erabiltzailearekiko funtzionaltasunik ere.




Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Kalkulu-metodologia bat proposatzen du Kodeak, eta puntuazio baten bidez eta aldez aurretik ezarritako parametro batzuei jarraiki eraikinaren iraunkortasun-maila balioesteko ahalbidetuko du, eta horrek, halaber, **eraikigarritasun iraunkorreko Ziurtagiri** berriak sortzea ahalbidetuko du etorkizunari begira, betiere dagokion Arautegia sortu ondoren.

4.1.3. Eraikal programa

- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ekimena da **Eraikal**, Kalitatearen Kudeaketa, Ingurumena eta Laneko Arriskuen Prebentzioa sustatzeko EAEko eraikuntzaren sektoreko enpresetan.
- Agertu zenetik eta 2005eko abendura bitarte, sektoreko 415 enpresa inguruk parte hatu dute Eraikal programan ISO 9001 arauaren arabera kalitatearen kudeaketa-sistemak, ISO 14001 arauaren arabera ingurumen-kudeaketa sistemak eta OHSAS 18001 zehaztapenean oinarritutako laneko arriskuen prebentzio-sistemak ezartzeko.

4.1 grafikoa Eraikal programan parte hartzea



2005eko abenduaren 31ko datuak

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza

- Aldi honetan, ziurtagiriak 146 izan dira guztira ISO 9001 arauaren arabera, 24 ISO 14001 aruari dagokionez eta 6 enpresak lortu dute OHSAS 18001 zehaztapenean oinarrituriko laneko arriskuen prebentzioko kudeaketa-sistema bat ezartzea.
- Era berean, nabarmentzekoa da Eraikalek egindako ekarpena VISESAK Zilarrezko Q-a lortzeko eta Euskalitek eraikuntzaren sektoreko enpresa bati emandako "Bikaintasunarekiko Konpromisoagatiko Diploma" (lehenengoa) eskuratzeko.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Bestalde, arkitektura-azterlanen programan izandako parte-hartze handia nabarmendu behar da, ISO 9001 arauaren arabera 61 ziurtagiri izan baitira guztira.
- Horretaz gain, sektoreko 229 mikroenpresak parte hartu dute mikroenpresa horien ezaugarrietara egokitutako kalitate-kudeaketako ereduaren ezarpenean: K-21, 196 enpresak lortu dute ziurtagiria eta 25 mikroenpresak ezarri dute laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketa-eredu bat.

4.1 koadroa Ziurtagiria duten enpresak Eraikalen barruan

ZIURTAGIRIA	ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESEN KOP.*
ISO 9001	207
• EJSN 45 eta70	146
• Arkitektura Azterlanak	61
ISO 14001	24
K-21 EREDUA	196
OHSAS 18001	6

* 2005eko abenduaren 31ko datuak

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

4.1.4. Ezbehar-tasaren aurka borrokatzeko neurriak eraikuntzaren eremuan

- Lan-segurtasunaren arloan, azpimarratzekoa da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, VISESAK eta EAEn ordezkari handiena duten sindikatuek —betiere eraikuntzaren sektoreari gagozkiola— hitzarmena sinatu dutela 2005eko martxoan laneko ezbehar-tasen prebentziorako. Akordio horrek lan-baldintza egokiak bultzatzen dituen irizpide eta jardunak zehazten ditu Sailak eta VISESAK zuzenean sustaturiko eraikuntza-obren eremuan.
- Hitzarmen hori sinatzeak esan nahi du Sailak ereduak eta lider izateko jarrera hartuko duela, sektoreko gainerako agenteengan trakzio-efektua izateko moduan, ezbehar-tasa epeetan eta kostu gehigarri esanguratsuetan eragin gabe murriz litekeela erakutsita.
- Akordioa sinatu zenetik, bi jardun-ildo jorratu dira bereziki:
 1. Kontrata nagusiak obraren bolumen handiena bere gain hartzea, **kate-azpikontratazioa kentzeko aukera** albait gehien sendotuz.
 2. **Langileari aplikatu beharreko hitzarmena** (langilearen nazionalitatea edozein izanda ere) haren jarduerari dagokion sektoreari dagokiona izatea, eta obra garatzen den Lurralde Historikoan.
- Era berean, kontrola dago enpresek obran lan egiten duten guztiek prebentzio-arloan **prestakuntza eta informazioa** bete dezaten.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Hitzarmena sinatu zenetik urtebete igaro den honetan, balantzea oso positiboa da, laneko ezbehar-tasa nabarmen gutxitzea lortu baita Sailaren eta VISESAren obretan, eta kate-azpikontratazioa ere murriztu egin da.
- Lehen urtean, 41 sustapenetan gauzatu da jarduna, hots, babes ofizialeko 4.345 etxebizitza, eta 146 eraikinen segurtasunaren jarraipena egin da. Aldi berean, kontrola egin zaie 41 enpresa nagusiri, hots, 1.164 langile ingururi batez beste.

JARDUNAK				
41 SUSTAPEN	4.345 ETXE BIZITZA	146 ERAIKIN	41 ENPRESA	1.164 LANGILE

4.1.5. Etxebizitza Sailaren bestelako ekimen eta jarduerak berrikuntza eta eraikigarritasun iraunkorrean

- Azkenik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren **Eraikuntzaren Kalitate Kontroleko Laborategia** egiten ari den lan handia da azpimarratzekoa. Material erabilienean entsegu fisiko, mekaniko eta kimikoak egiten dira Laborategian, arlo teknologiko berriak bultzatuta, betiere bizigarritasunaren eta konfort termiko eta akustikoaren kalitatea ikertzeko eta garatzeko.
- Hurrengo koadroan, Sailaren Arauzko eta Kalitate Kontroleko Zerbitzuaren jarduera-ildoak erakutsiko dira zehatzago, nahiz eta batez ere azpimarratu beharrekoa "Acoubat-dBMat" eraikinetan zarata aurreikusteko softwarea egokitu eta garatzeko azterlana izan (EKT berriaren eskakizun akustikoak betetzeko laguntza-tresna).



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

4.2 koadroa Arauzko eta Kalitate Kontroleko Zerbitzuaren jardun-ildoak

JARDUN ILDOAK		2002-2005 EKITALDIKO JARDUNAK
1. LABORATEGIA:	A. KALITATE KONTROLA	Kalitate-kontroleko programen azterketa eta VISESAren 32 sustapen onartzeko kontrol-entseguak (4.440 etxebizitza); materialen entseguak (7.240 entsegu g.g.b.); laborategien arteko ariketak antolatzea; bezeroentzako entseguak; laborategiko teknikariak prestatzea.
	B. ARLO AKUSTIKOA	Acoubat-DbMat Egokitzapena eta Garapena (eraikinen zarata aurreikusteko softwarea); 483 entsegu akustiko fabrikatzaile eta bestelako erakundeei; txosten teknikoak aurkeztea Tecniacústica eta Euronoise ekitaldietan; EKT ren Eraikuntzako Akustikako G1-HR-1 prestakuntzaurreko ikerketa-taldean parte hartzea; arlorako 169 bisitari arreta eskaintzea; NEB/TC126 Normalkuntzako Europako Batzordean parte hartzea.
	C. ARLO TERMIKOA	Arlo termikoa sortzea; zehaztapen termikoko 40 entsegu ; EHU rekin hitzarmena sinatzea; bezeroei eskaintza zabaltzea; ikerketa-jarduerak (I+G+B) zehaztapen termiko eta higroskopikorako.
2. ARAUZKO ELABORAZIOA ETA LANKETA		Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinuari buruzko ordenantzak ; Eraikinen Liburuaren erregulazio-dekretuak; Entseguko laborategien egiaztapenari buruzko dekretu berria ; Eraikinen Azterketa Teknikorako Gida Tekniko metodologikoa.
3. KALITATE KONTROLA		Egikaritze-fasean dauden obrei buruzko 62 ikuskapen (5.026 etxebizitza) Kalitate Kontroleko Dekretua betetzen dela egiaztatzeko.
4. LABORATEGIEN EGIAZTAPENA		Dekretu zaharraren bidez (05/08/04ra arte) 13 laborategi egiaztatu ziren 28 arlotan eta Dekretu berriarekin , aldiz, beste 13 laborategi 41 arlotan .
5. HITZARMENAK ARKITEKTOEN ETA APAREJADOREEN ELKARGOekin		Eraikuntzaren eta etxebizitzaren kalitatea hobetzeko lankidetzaren hitzarmenak: 42 Azterketa Tekniko egin dira 50 urtetik gorako Eraikinetan , baita prestakuntza-ikastaroak eta bestelako jarduerak ere.
6. DATU BASEAK		Honako hauei buruzko datu-baseak landu, eguneratu eta argitaratzea: eraikuntzaren eta urbanizazioaren prezioak, nahitaez bete beharreko arauzko indizeak, eta laborategi egiaztatuak.
7. LAN TALDEETAN PARTE HARTZEA		Foroetara bertaratzeko; lan-taldeetan parte hartzea; eraikinak kontserbatzeko, eraberritzeko eta birgaitzeko AENOR-en CTN 41 azpilantaldean parte hartzea.
8. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUAREN AHOLKULARITZA ZERBITZUA (ISEK)		Laguntza tekniko eta juridikoa ISEKentzat, eta partikular, elkarte eta administrazioentzat: 1.154 laguntza 900 linean eginiko kontsultentzat, 143 kontsulta-espediente erantzun-txostenarekin, 364 salbuespen-espediente betearaztearekiko, ISEK-en txostenak lantzea.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Era berean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Industria Sailaren laguntzarekin —eta betiere produktu eta prozeduren estandarizazioa eraikuntzaren kalitatearen mesedetan izango dela konbentzituta—, bultzada irmoa eman nahi dio sektorearen industrializazioari, Industrializazio Klusterra sortuta.

4.2. PARKE ERAIKIA KONTSERBATU ETA MANTENTZEA

4.2.1. Birgaitze-arloko jardunak.

- 2002-2005 aldian birgaitzeko 5.332 mailegu onartu dira guztira (32,4 milioi euro), eta % 83 birgaitze bakanduko jardunetarako eta % 17 birgaitze integratuko operazioetarako.
- Birgaitzeko diru-laguntzei dagokienez, emandako 49.718 diru-laguntzei dagokien guztizkoa 42,3 milioi euro izan da. Birgaitze-jardunek diru-laguntzen % 73 hartu dute, eta birgaitze integratuak, aldiz, % 27 bildu du.
- Birgaitzeko laguntzen hazkunde argia erakusten dute zifra horiek Etxebizitza Bideratzeko aurreko Planekin alderatuz gero. Ildo horretan, azpimarratzekoa da 2002-2005 aldian 10,6 milioi euro eman zirela urtean birgaitzeko diru-laguntzetan, eta, aldiz, 3,5 milioi/urte 2000-2001 aldian eta 2,5 milioi/urte 1996-1999 aldian.

4.3. koadroa **Birgaitzeko diru-laguntzak eta onartutako maileguak. 2002-2005**

	Jardun kopurua*	Zenbatekoa (milako euro)	
		Guztira	%
Onartutako maileguak	5.332	32.409	100,0
<i>Birgaitze bakandua</i>	4.646	26.755	82,6
<i>Birgaitze integratua</i>	686	5.654	17,4
Diru-laguntzak	49.718	42.326	100,0
<i>Birgaitze bakandua</i>	43.634	30.831	72,8
<i>Birgaitze integratua</i>	6.084	11.495	27,2

* Jardun kopuruak maileguen kopurua jasotzen du onartutako maileguen kasuan; diru-laguntzen kasuan, berriz, diru-laguntza izan duten etxebizitzaren kopurua jasotzen du.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

4.2.2. Eremu degradatuei buruzko programa

- 2002ko ekitaldian Etxebizitza Sailak lehen aldiz abiarazi zuen eremu degradatuei zuzendutako hiri-berrikuntzako programa bat. Programak oso



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

harrera positiboa izan zuen, eta gauzatzeek ia bostetan biderkatu zituzten aurreikuspenak.

- Azpimarratzekoa da 2002ko deialdi horretan eta hainbat urtetarako duen proiektzioa kontuan izanda, diru-laguntzak onartu zirela (23,4 milioi euro) ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko Birgaitze Integratuko Eremuetan edo Bizitegi Eremu Degradatuetan.
- Zenbateko horren zatirik handiena urbanizazio-proiektuak diruz laguntzeko izan da (17,5 milioi, guztira % 75), eta eraikitze-proiektuek, aldiz, diru-laguntzen ia gainerako guztia hartu dute (5,3 milioi, % 22,6), guztizkoa urbanizazio-proiektuen idazkuntzari eta dokumentuen idazkuntzari bideratutako zenbatekoekin osatuta.

4.4. koadroa Eremu degradatuetan ondarea birgaitzeko emandako diru-laguntzak. 2002-2004.

(Milako euro)

AZALPENA*	2002	2003	2004	Guztira
Urbanizazio-obrak	3.512	4.862	9.188	17.562
Eraikuntza-obrak	1.061	1.739	2.503	5.303
Urbanizazio-proiektuaren idazkuntza	52	209	0	261
Dokumentazioaren idazkuntza	59	235	0	294
Guztira	4.684	7.045	11.691	23.420

* Hainbat urtetarako programa.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

- Oro har, 68 proiekturi eman zaie diru-laguntza, eta 35 urbanizazio-obra, 14 eraikuntza-obra eta urbanizazio- edo dokumentazio-proiektuen 19 idazkuntza biltzen dituzte. 27 Udali eta Udalaren 7 Birgaitze Sozietateri egokitu zaizkie diru-laguntza horiek.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

4.5 koadroa Udalen eta birgaitze-sozietateen kopurua, eta diruz lagundutako proiektuen kopurua. 2002-2004.

	Udalen / sozietate en kopurua	Proiektuen kopurua				Zenbatek oa (milako euro)
		Urbanizazi o-obrak	Eraikun tza- obrak	Idazkun tza	Guztir a	
Diruz lagundutako udalak						
• Araba	7	6	2	1	9	2.977
• Gipuzkoa	7	9	0	5	14	9.320
• Bizkaia	13	11	9	9	29	6.917
Udalak, guztira	27	24	11	17	52	19.214
Birgaitze-sozietateak						
• Gipuzkoa	4	4	0	2	6	1.055
• Bizkaia	3	7	3	0	10	3.151
Sozietateak, guztira	7	11	3	2	16	4.206
GUZTIRA	34	35	14	19	68	23.420

* Hainbat urtetarako programa.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

- 2005ean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko laguntzetarako deialdi berri bat onartu zuen, nahiz eta askoz ere mugatuagoa izan bere helburuari eta laguntzen bolumenari dagokienez 2002an abiarazitakoa baino, kasu honetan laguntzak proiektuen idazkuntzarako baitira soil-soilik, eta ez obrak egiteko.
- Deialdi berri honek biltzen dituen laguntzen guztizkoa 270.000 euro eskas da, birgaitzeko azterlan eta planen idazkuntza-proiektuen diru-laguntzaren eta urbanizazio-proiektuen idazkuntzaren artean banatuta (178.000 euro eta 91.000 euro, hurrenez hurren). Hainbat urtetarako duen proiektzioak 2005-2006 aldia biltzen du.

4.6 koadroa Eremu degradatuetan ondarea birgaitzeko emandako diru-laguntzak*. 2005-2006.

(euroak)			
AZALPENA*	2005	2006	Guztira
<i>Birgaitzeko azterlan eta planen idazkuntza</i>	35.558	142.232	177.790
<i>Urbanizazio-proiektuen idazkuntza</i>	18.173	72.690	90.863
<i>Guztira</i>	53.731	214.922	268.653

* Hainbat urtetarako programa.

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

4.2.3. Irisgarritasun-programa

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Udal eta Toki Erakundeentzako laguntza-linea bat du irisgarritasun-planak landu eta hobekuntza-obrak



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

egikaritzeko, betiere hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatzeko.

- Horrela, 2002-2005 aldian, kontzeptu hori dela-eta onarturiko diru-laguntzak 10,9 milioi eurora iritsi dira, 9,9 milioi irisgarritasun obrak egikaritzeari dagozkiola eta gainerako milioia, berriz, plana lantzeari.

4.7 koadroa Irisgarritasuna hobetzeko emandako diru-laguntzak. 2002-2005.

AZALPENA	Guztira, 2002-2005	
	Kop.	Zenbatekoa (milako euro)
Planak	74	1.070
Obrak	613	9.868
<i>Guztira</i>	687	10.938

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza

- Lurralde Historikoen arabera banaketa kontuan hartuta, egiazta daitekeenez, 2002-2005 aldian emandako laguntzak gehiago bildu dira Gipuzkoako udalerrietan (% 51,6) Bizkaian eta Araban baino (% 38,5 eta % 9,9, hurrenez hurren).

4.8 koadroa Emandako irisgarritasun diru-laguntzen banaketa Lurralde Historikoen arabera. 2002-2005

AZALPENA	Diru-laguntzen zenbatekoa, guztira	
	(Milako euro)	%
Araba	1.083	9,9
Bizkaia	4.211	38,5
Gipuzkoa	5.644	51,6
<i>Guztira</i>	10.938	100,0

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza

4.2.4. EKT berria: Egungo eraikinen birgaitzea

- Eraikuntzaren Kode Tekniko berria onartzeak ez ditu soilik eraikuntza berriko eraikinak eraginpean hartuko; izan ere, egungo eraikinek birgaitze-jardunak egin beharko dituzte araudi berriak eskaturiko segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak betetzeko.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

4.2.5. EATak: Eraikinen Azterketa Teknikoak

- Eraikinen kontserbazio-egoera aldian behin aztertu beharra ezartzen du Lurzoruari buruzko Lege berriak.
- Eraikinen Azterketa Teknikoari buruzko araudi berria indarrean hasten denetik, 50 urtetik gorako eraikin guztiei aldian behingo azterketa bat egin beharko zaie, eta azterketa horretan atzemandako irregulartasun guztiak konpondu beharko dituzte. Azterketa horien azken helburua eraikin horiek iraunkorragoak izatea da, ingurumen-aurrezte handia ere ahalbidetuz.
- Dagozkion azterketez gain, eraikin guztiek "Eraikinaren Liburua" eduki behar dute, eta bertan biltzen dira eraikinaren oinarritzko datuak, eta mantentze- eta konponketa-lanen erregistroa.



Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

5. ETXEBIZITZA PREMIA

5.1. ETXEBIDEN ERREGISTRATUAK

- 2006ko apirilean, guztira 82.587 espediente daude erregistratuta Etxebide Etxebizitza Euskal Zerbitzuan⁵. Zifra hori 76.193ra murrizten da Bizigune Programako etxebizitza bat edo alokairuko parke sozialaren etxebizitza bat gaur egun okupatzen ari diren pertsonak alde batera utziz gero. Alokairuko esleipen bat onartzeko prest dauden pertsonen taldea etxebizitza-premia larriena duen taldetzat hartuta (aurreko guztizkoaren % 56), espedienteen zifra 42.668 da.
- Etxebiden erregistraturiko pertsonen profilaren lehen hurbilketa bat eginez gero, ikus daiteke kolektibo horrek batez ere 35 urtetik beherako gazteak biltzen dituela (guztizkoaren % 66,2), zati handi samar batek adin hori gainditu badu ere (gainerako % 33,8a). Nabarmentzekoa da, halaber, eskaera gehienak kide bakarreko familia-unitateei dagozkiela egiazta daitekeela (guztizkoaren % 74,3), 2 kideko bizikidetzak-unitateek egindako eskaerak ere kontuan hartzeko proportzioa biltzen badute ere, nahiz eta oso azpitik dagoen (guztizkoaren % 15,2). 3 kide edo gehiagokoek egindako eskaerak, aldiz, oso zati txikia biltzen dute (% 10,5).

5.1 koadroa Etxebiden erregistratutako eskatzaileen ezaugarri soziodemografikoak* (2006ko apirilaren 3an)

	%
Eskatzailearen adina	
< 25	8,8
25-29	32,8
30-34	24,6
35-39	12,9
40-44	8,1
45etik gora	12,9
Familia-unitatearen kide kopurua	
1	74,3
2	15,2
3	5,7
4 edo gehiago	4,8
GUZTIRA	100,0

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

⁵ Datu horiek kontu handiz interpretatu behar dira, erregistroko erregistro bakoitza ez baita beti etxebizitza-premia bat. Adibidez, zenbait bikotek bi eskabide indibidual aurkezten dituzte, bikotearen eskabide bakarraren ordez.